

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 27a / 510. zenbakia

**EKIALDEKO
SAIHESBIDEA
ZABALIK**

IGERILEKUAK: DOMEKAN ITXIKO DITUZTE/6 • KIROLAK: ENRIQUE SAN NICOLASI ELKARRIZKETA/10

GIDA 2003 abian!

Aurten ere, telefono partikularrak aurkitu ahal izango dituzu.

Lagunak, familia, ezagunak...
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu
edo aldatu baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Gida Komertziala,
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

ATREBENTZIAEZPADA/ Jardunek bertso eskolak jarri ditu martxan. Zu bertsozalia zara?



AITOR AMUTXASTEGI
18 urte



ANGELA LATORRE
65 urte



PAULA PIN
24 urte



INES SOLOZABAL
14 urte



AITZIBER LIZARRALDE
17 urte



TOMAS IGARTUA
50 urte

Ez naiz bertsozalia. Ez naiz behin be juten bertso saiuetara. Saiatu izan naiz entzuzten eta eskolan jardun giñuan, txikitan, baiña nahiko aspergarriak pentsatzen jat bertsoak.

Bai, asko gustatzen jat. Aukeria izaten dotenian gustora entzuten ditut, eta etxian be asko gustatzen jakue. Nere bertsoaririk gustokuena Andoni Egaña da.

Beti gustatu izan jat, txikitatik. Entzuteko gustatzen jat, egiteko ez; ikastolan txikitan egin giñuan zer edo zer... Astixa eukitta igual apuntauco nitzake Jardunen bertso eskolara.

Ez jat bertsoaritzatza gustatzen. Behin be ez naiz zalia izan. Ez neuke esango aspergarriak danik, baiña ez nau erakartzen. Dana dala, Euskararen Egunion bertso bat kantau neban.

Ikusi eta entzun gustora egitten dot, baiña ez dot neure burua bertso jardunian ikusten. Oso zalia be ez naiz, ez daukat bertso saiuetara juteko ohitturarik.

Ez jat bertsoaritzatza askorik gustatzen. Irratixan entzuten dot batzuetan, baiña ez naiz zalia. Bestela be, nahiko nagusixa naiz Jardunen bertso eskolan izena emoteko. Hori, gatziek.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZUHAIXKAK SALDU ERE EGITEN DITUZTE Egunotan Irizar jauregiko lorategia atontzen aritu dira. Besteak beste, zuhaixkak aldatu dituzte. Lan horretan ari zirela, lorezain batek kexu bat helarazi digu: norbaitek edo norbaitezuek Irizartik zuhaixkak kendu eta etxera eramaten dituztela. San Pedro parrokia ondoko lorategian gauza bera gertatzen ei da, baina han loreekin. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 11

KULTURA / 12

Saihesbidea ireki dute

Atzo, eguna inauguratu eta irekitzekoak ziren ibilgailuendako Ekialdeko saihesbidea.

Areto Futbola abian da

Labegarietako Areto Futbol Txapelketaren 17. aldia hasiko da oraingo aste bukaeran.

Udazken Kulturala

Urriaren 4an hasi eta Gabonak bitartean, ekitaldi sorta zabala ekarriko du Udazken Kulturalak.

ASTEKODATUA

300

LABEGARIAETAKO ARETO FUTBOLEKO JOKALARIAK

Zapatuan hasiko den areto futbol txapelketan 300 bat jokalaria arituko dira lehian. 28 taldek hartuko dute parte, bi multzotan banatuta. Astero-astero partiduak izango dira kiroldegian.

BESTEKEESANA

“ Hau ez da ezker abertzalearen aurkako eraso bakarrik, Euskal Herri osoaren aurkako baizik. Franco hil ondoren, Suarezek politika bat hasi zuen pixka bat soka laxatzeko, eta, horren barruan, estatutuak, eskuduntzak eman zituen... Martin Villak esaten zuen soka laxatu behar zela une hartan, oso tenkatu-rik zegoelako. Izan ere, gaineratzen zuen iritsiko zela unea berriz ere tiratzeko. Madrilek hori egin du, laxatzen joan da, Aznar iritsi arte. Hori sokari tira egiten hasi zaio berriro, eta estrategia horren barruan sartzen da Batasuna legez kanpo jartzea. Baina ez da gure aurkako estrategia; gu lehenak gara, baina gure atzetik EAJ doa, helburua abertzaletasuna delako.

JOSE LUIS ELKORO
‘Euskaldunon Egunkaria’/02-09-22

BERAIEK DINOE/ Mikel Elkoroberezibar



Abertzaleak egurru; eta beste zer?

Uztailaren 12an PNV-EA koalizioak, Batasunaren abstentzioarekin, estatutua osatzeko falta diren transferentziak emateko bi hilabeteko epea eman zion Espainiako gobernuari eta horretaz gain burujabetzan sakontzeko konpromisoa hartu zuten. Epe hori bukatuta Eusko Jaurlaritzak neurriak hartuko zituela aipatzen zuen dokumentuak. Halere, Aznarren gobernuaren erantzuna ezin argigarriagoa izan da: ezetz borobila.

Bi aste pasatu dira dagoeneko eta Eusko Jaurlaritzak legebiltzarrak hartutako erabakia jarraitu beharrean ez du ezer egin, PNV-EA berriz ere hitz politetan geratu dira, baina benetan demokratikoki onartutakoa gauzatu behar denean atzera bota eta legea, espainiar legea, erdaraz esaten den moduan " a sangre y fuego" ari dira aplikatzen. Ibarretxe jaunak adierazi beharko dio euskal gizarteari ze pauso

hartu behar dituen legebiltzarrak onartutakoa betetzeko, eta ez geratzeko beste akordio batzuen moduan batzoki eta alkartetxeetako apaletan, mus txapelketetako trofeoan ondolan. Zeren ez dakit konturatu diren PNV-EAkoak, baina azken legegintzaldian euren

“EAJ-Eak egin duen gauza bakarra da Autonomia kalean milaka abertzale egurru”

aurrekontuak aurrera ateratzea posible egin duen alderdia, Batasuna, horren sutsuki defenditzen ari diren legalitate espainiarren arabera ez da legala, are gehiago legalitatearen barruan ez du eskubiderik. Gainera

egoera horrek hobera egin beharrean, txarrera egingo du PP-PSOE erasoaldi berriak iragarri baitituzte eta horren aurrean PNV-EA bikoteak oraindik benetan egin duen gauza bakarra da Autonomia kalean milaka abertzale egurru, gordinki erakutsiz zein den Espainiako legedia jarraituz abertzaleendako etorkizuna. Hori bai, Ibarretxe eta Balza jaunak ez dute abertzaleen arteko enfrontamendua bilatzen...

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elepuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 27**
MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 28**
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- DOMEKA, 29**
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 30**
PUY. Barenkalea 25..... 943 76 16 87
- MARTITZENA, 1**
GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 2**
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUENA, 3**
MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa..... 943 76 62 46
Ertzaintza..... 943 76 53 40
Osasun etxea..... 943 76 24 40
Asepeyo..... 943 76 16 43
Pakea..... 943 76 13 49
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
Odol emaitzak..... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
Igerilekuak..... 943 76 20 51
Kultura etxea..... 943 77 91 58
Liburutegia..... 943 77 91 62
Kiroldegia..... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
Erregistroa..... 943 76 13 15
Jardun..... 943 76 36 61
Idolaz..... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea..... 943 76 26 85
Bedelkar..... 943 76 04 68
Akulu AEK..... 943 76 05 18
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
Bergarako notariatza..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--------------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Zapatuak: 20:00. |
| Sierbak | Angiozar |
| Lanegunak: 19:15. | Domekak: 11:30. |
| Zapatuak: 19:00. | Moja |
| Domekak: 11:30, 13:00. | Zahararak |
| Osintxu | Lanegunak: 9:00. |
| Domekak: 12:30. | Zapatuak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | Mizpirualde |
| Elosu | Lanegunak: 11:45. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak: 17:30. |
| Ubera | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 09:00, 11:30. |
| San Juan | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Domekak: 11:00. | Uzarraga |
| Elorregi | Domekak: 10:00. |
| Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1948AN JAIOTAKOAK
1948an jaiotako enafaria zapatuan, hilaren 28an, Txuringon. Osintxura joateko autobusa 21:00etan irtingo da, frontoitik.

1947AN JAIOTAKOAK
1947an jaiotako enafaria urriaren 19an, Tartufo jatetxean. Joan-etorria egiteko autobusa egongo da. Izenematea, (42 euro) Euskadiko Kutxan.

UMEEN KATEKESIA ABIAN
San Pedroko parrokiak jakinarazi duenez, umeen katekesiaren hasiera irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an izango da, Komenioko lokalean, 17:00etan.

BEART-EN MARGO IKASTAROAK
Beart herriko artisten elkarteak 6 eta 15 urte bitarteko gaztetxoendako Margo ikastaroa antolatzen du, urritik aurrera. Eskolak zapatuetan izango dira, 10:00etatik 13:00etara. Izenematea 653 71 53 82 (Mayra) edo 615 75 60 19 (Oihana) zembakietan. Bestalde, Rikardo Azkar-gortak ere margo ikastaroa emango du (hasiera eta sakontze mailak) urritik aurrera. Teknika ezberdinak landuko dituzte. Izenematea 943 76 50 86 edo 656 72 44 49 telefonoetan.

JARDUNEN AGENDA

TRIKITI ESKOLAKO GURASOEN BATZARRA
Jardunen Trikiti Eskolak urriaren lehen hasiko du ikasturtea. Astelehenean, irailaren 30ean, gurasoen batzarra izango da kultura etxean, 19:00etan. Izenematea eta argibideak Jardunen, Errotalde jauregian, edo 943 76 36 61 telefono zembakian.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Eskola berria inauguratu zuten Angiozarren

1992ko San Migel jaietan, irailaren 27an, Angiozarko eskola berria inauguratu zuten. Eskola berria egiteak 25 milioi pezeta-ko aurrekontua izan zuen eta Eusko Jaurlaritzak ordaindu zuen. 1992-93 ikasturtean hiru urtetik zortzi urte arteko 10 ikasle ari ziren Angiozarko eskolan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lakatzza"

Mozkorra, mozkorraldia, atxurra.
- Azelakotxe lakatzza arrapau zeban!



ASTEKO FILMAK

'EL OTRO LADO DE LA CAMA'

ZUZENDARIA: EMILIO MARTÍNEZ-LÁZARO.
AKTOREAK: ERNESTO ALTERIO, PÁZ VEGA, GUILLERMO TOLEDO, NATALIA VERBEKE.

HARIA. Komedia honek sekulako arrakasta lortu du, bikoteen arteko harremanak eta nahasteak musikaren uztartuta.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean 22:30ean; zapatuan, 19:30ean, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean eta astlehenean 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'ASTERIX Y OBELIX: MISIÓN CLEOPATRA'

ZUZENDARIA: ALAIN CHABAT. AKTOREAK: CHRISTIÁN CLAVIER, GERARD DEPARDIEU, MONICA BELLUCCI.

HARIA. Kleopatra-k Egiptoko inperioaren handitasuna erakutsi nahi dio Julio Zesar-i, eta jauregi bat eraiki nahi du oso epe laburrean, marka guztiak hausteko. Asterix-en, Obelix-en eta Pano-ramix-en laguntza izango du.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 24 **7°C**

MAXIMOA
Egubakoitza, 20 **31°C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
13,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	28 °C	15 °C	2,9 l/m ²
Eguena, 19	29 °C	13 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 20	31 °C	14 °C	- l/m ²
Zapatua, 21	24 °C	13 °C	10,4 l/m ²
Domeka, 22	21 °C	15 °C	- l/m ²
Astelehena, 23	19 °C	10 °C	- l/m ²
Martitzena, 24	17 °C	7 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49
Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53

Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

ERREPIDEAK / Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Roman Sudupe diputatu nagusia eta Antton Jaime Errepideetako diputatua izan ziren

Atzo inauguratu eta zabaltzekoak ziren ibilgailuendako ekialdeko saihsbidea

MONIKA BELASTEGI

Urte eta erdiko lanen ondoren, atzo, 12:30ean zen inauguratzeko ekialdeko saihsbidea. Oruesagasti baserri inguruan hasi eta Teileriaraino doa errepide berria. Gerora Antzuola eta Arrasate aldera jarraitzen izango duen Beasain-Durango korridorearen zatia da.

Atzoko (eguna) inaugurazio ekitaldian Antton Jaime Garraio eta Errepideetako diputatua, Jose Mari Sarasola Errepideetako zuzendaria, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Udaleko beste hainbat ordezkari ziren egotekoak. Ekitaldiarekin batera, saihsbidea irekitzekoak ziren ibilgailuendako.

Begarako ekialdeko saihsbidearen eraikuntza lanak 2001eko martxoaren 2an hasi zituzten, eta enpresa eraikitzailea Construcciones Mariezkurrena SL izan da. Adjudikazioa aurrekontua, berriz, 15.532.609 eurokoa (2.584.408.777 pezeta) izan da.


Saihsbidea Beasain-Bergara-Durango (GI-632) zeharkako korridorearen zati da, Gipuzkoa egituratu eta Gipuzkoa eta Bizkaia lotzeko ardatzaren zatia, hain justu ere. GI-632 errepideak duen zirkulazioa oso handia da, eta Bergarari dagokion tartea herri barrutik pasatzean izugarriko ibilgailu ilarak sortu izan dira. Foru Aldundiaren esanetan, Beasain eta Bergara arteko zatirik arazotsuena da Bergarari dagokiona.

Hori horrela, bi xede izan ditu ekialdeko saihsbidea eraikitzeak: alde batetik, Beasain-Bergara-Durango zeharkako ardatzaren zati da, eta, hortaz, eskualde eta lurraldeak lotzea du helburu. Horretarako, gerora Antzuola eta Zumarraga aldera luzatzeko diseinaturik dago. Eta, horrez gain, Zaldumendiko lotunearen bidez A-1 autobidearekiko lotura ere hasita dago.

SAN ANTONIOKO BIDEGURUTZEA NABARMEN ARINDUKO EI DU

Bestetik, saihsbidea ere bada atzo inauguratzeko ziren errepideak: Bergarako herrigunea San Antonio ingurutik Torrekua pareko zubiraino zeharkatzen duen GI-632 errepidearena, hain justu ere. Orain arte ia egunero izan dira auto ilarak gune hartan, eta saihsbidearekin asko arinduko da zirkulazioa, Foru Aldundiaren ustez. Horrekin batera, zirkulazio handiak eragindako beste arazo batzuk ere arinduko ditu saihsbideak, denbora galtzeak eta ingurumenaren eraginaren gaineak, besteak beste.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departam-



lazo martxoaren 2an ziren saihsbidea eraikitze lanak, eta urte eta erdi inguru eman du eraikitzen Construcciones Mariezkurrena SL enpresak.

Iaz, martxoaren 2an, hasi zituzten ekialdeko saihsbidea eraikitze lanak

Oruesagastitik Teileriarainoko zatia bukatu dute; gerora alde bietara jarraituko du

Saihsbideak hasiera-hasieratik zirkulazioaren %60 bereganatuko duela uste du Aldundiak

Zubiaurreko tunela eta Teileria-ko zubi berria dira eraikitako egitura nabarmenenak

mentuak berriki argitaratu eman duen zirkulazio neurketen arabera, iaz, batez beste, 11.351 ibilgailu pasatu ziren egunero San Antonioko bidegurutzetik. Foru Aldundiaren esanetan, Ekialdeko saihsbide inauguratu berriak zirkulazio horren %60 bereganatuko du hasiera-hasieratik.

Alfontso Alonso udaltzainburen esanetan, San Antonioko eta Torrekua pareko bidegurutzeak herriko punturik beltzenak dira. Lehenengoan, esaterako, "07:15etik 08:30era bitartean egon behar izaten dugu egunero, sortutako ilarak izugarriak zirelako, eta, batzuetan, baita eguerdi eta arratsaldeetan ere".

ZUBIARRREN 340 METROKO TUNELA ETA TEILERIAN ZUBI BERRIA

Saihsbide berriaren enborra 2,1 kilometro luze da, eta horri Teileria-ko eta Oruesagastiko lotu-

neetako bide-adarrak gehitu behar zaizkio, beste 1,2 kilometro.

Saihsbideak bide azkarrek izan ohi duten trazatua eta ezau-

garriak ditu: bi errei eta abiadura motelerako beste bat. Bestalde, zazpi metroko galtzada dauka, 2,50 metroko bazterbideak eta


0,75 metroko berma. Horrez guztiaz gain, Teileria-ko lotune-gunean plataforma zabaltzeko egiten da, aurrera begira erraiak bikoizteko aukera egon dadin.

Saihsbidea eraikitze lanen barruan azpimarratzekoak dira Zubiaurreko tunela eta Teileria-ko lotunean Deba ibaiaren gainean egindako zubi berria. Tunelari dagokionez, 340 metro luze da eta 11,50 metro zabal.

Halaber, zubi horrek erdian pilare batek banatzen duen 20 metroko argiko bi begi ditu, eta taulak lauza bikoiztua du, aurretenkatutako hormigoiz arindua, eta ertzak 90 zentimetro baino ez du. Zubi horri esker, uholde arriskua konponduta geratzen da. Gainera, azpiko hiru pasabide egin dituzte eta bi horma handi, errepidearen zabalgunek industrialdeko lurak hartu beharrik ez izateko.

Ezaugarri nagusiak

- Enborearen luzera: 2.097 metro.
- Bideadarren luzera: 1.244 metro.
- Egiturak:
 - Aurretenkatutako zubi Deba ibaian.
 - Azpiko hiru pasabide.
 - Sagastizabalgo erreko zubi berritua.
 - 340 metro luzeko tunel bat.
 - Bost horma.
- Enpresa eraikitzailea: Construcciones Mariezkurrena.
- Gaur egungo zirkulazioaren %60 bereganatuko du.
- Lanen hasiera eguna: 2001eko martxoaren 2a.
- Irekitze eguna: 2002ko irailaren 26a.
- Aurrekontua, denera: 15.532.609 euro.



Debagoieneko gainerako herrietako igerilekuak erabiltzeko aukera zabaldu du Udalak, Arrasatekoa (irudian), esaterako.

ARTXIBOA

IGERILEKUAK/ Datorren astean zabalduko dute gimnasioa kiroldegi osteko lokalean

Domekan, hilak 29, itxiko dituzte Udal Igerilekuak

MONIKA BELASTEGI

Domekan itxiko dituzte kanpoko igerilekuak. Ondorioz, bazkideak igerileku zerbitzurik gabe geratuko direnez, bi aukera eskainiko dizkie Udalak: bata, ordaindutako kuota zati bat abonatzeari; bestea, gainerako herrietako igerilekuak doan erabiltzea.

Itxiera hainbat egunez luzatu ondoren, kanpoko igerilekuak domekan, hilaren 29an, itxiko dituztela adierazi du Udaleko Kirol Zerbitzuak.

Horregatik, eta estaliak irekiko ez dituztelako, bazkide direnei bi aukera eskainiko dizkie Udalak urritik abendura bitar-

tean: bata, abendura arteko zati proportzionala dirutan jasotzea, hau da, ordaindutako kuota %25; bestea, Debagoieneko Kirol Txartela eskuratzeari.

Lehenengoaren alde egin dutenen kasuan, Udaleko Kirol Zerbitzuko bulegoetara hurbildu edo deitzea komeni da. Izan ere, eta denbora tarte bat utzi ondoren, Kirol Zerbitzuak ez badu abonatuaren erabakiaren berririk, Debagoieneko Kirol Txartelaren aldeko erabakia hartu duela uste izango du.

Dirua itzultzeko orduan, ordainketa helbideratuta dutenei kontu-korrontean sartuko diete dirua. Gainerakoek kontu-korrontearen zenbakia eman beharko dute Udalean.

Horrela, bigarren aukeraren alde egin dutenek Udalean eskuratu dute Debagoieneko Kirol Txartela. Txartel horrek Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko Udal kirol instalazioetan sartzeko aukera emango die urriaren 7tik aurrera, kostu gehigarria ordaindu gabe. Bien bitartean, orain arte erabilitakoak ere balio izango du.

GIMNASIOA LABEGARAIETAN

Gimnasio zerbitzuari dagokionez, Labegarietako kiroldegiaren osteko pabiloira eramango dute. Dagoeneko egokitu dute tokia, eta astelehenean hasiko dira kardio eta muskulazio makinak bertara eramaten. Aste amaiera aldera abian egongo da.

Gaur, egubakoitza, San Migel jaiak hasiko dira Angiozarren

MONIKA BELASTEGI

Gaur, 20:00etan, hasiko dira jaiak etxafuego, kanpai jotze eta Ikurrina herriko etxean jartzeko ekitaldiekin. 22:00etan, Mus Txapelketa jokatu dute Pagomendi elkarrean, eta 23:00etan, berriz, moztorro dantzaldia, Muxutruk taldeak alaituta. Dantzaldiaren ondoren, goizaldean dagoeneko, gaueko jolasak izango dira, eta gero, txokolate beroa banatuko dute nahi duen guztia erandako.

Zapatuan, 15:30ean hasiko dira ekitaldiak, plater tiroketa txapelketarekin. 17:30ean, Briska txapelketa izango da Pagomen-

din, eta 21:30ean, herri afaria izango da elizpean. Afarirako sardinak eta saiheskia prestatuko dituzte. Eta 00:00etan, Etxabe anaiekin dantzaldia izango da.

SAN MIGELEN ZERURATZEA

Domekan, 11:30ean, meza nagusia izango da, erretiratuek abestuta, eta ondoren lancha eta kalejira, Zezi eta Jokin trikitilariekin. 17:30ean, Iparraldeko herri kirol erakustaldia izango da, eta 19:00etan, *poney*-ak eta zezenak, herriko plazan.


Horren ondoren, eta jaietako amaiera emateko, 20:30ean, *San Migelen zeruratzea* egingo dute.



Kale agerraldia ETaren atentatua salatzen

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak egindako deialdiari erantzunez, hainbat lagunek elkarretaratzea egin zuten eguaztenez, San Martin plazan, 12:00etan, ordu laurdenez.

Martitzen eguerdian Leitza eta Berastegi artean ETak egindako atentatuari erantzuna izan zen elkarretaratzea. Atentatuan Juan Carlos Beiro guardia zibila hil zen.



Bi manifestazio Borroka Egunean

Irailaren 25ean, Borroka Egunean deialdiaren barruan, bi manifestazio izan ziren herrian. Bata, 12:00etan, eta hirurehunetik gora ikasle eta gazte hartu zuten parte; bestea arratsaldean izan zen, 19:30ean. Manifestazioak *Utzi pakean euskal gazteria, Epaketa arrotzik ez eta Euskal gazteria Euskal Herrian libre* lelopean egin zituzten. Agerraldien arrazoia izan zen egun berean eta Segiko kide izatearen akusaziopean Eneko Aizpurua gaztearen epaketa, Frantzian.

LABUR

Txapa Irratiak denboraldi berriari ekingo dio

Udazkenarekin batera, Txapa Irratiak denboraldi berriari ekingo dio. Hori horrela, nahi duen edonor gonbidatu eta animatzen dute Txapa Irrati-ko saio berrietan parte hartzera. Programazio berria, zehazteko batzarra bihar, zapatua egingo dute, 12:00etan, irratiak Zabalotegi dorrean duen egoitzan. Hori horrela, denboraldi berriaren programaren bat egiteko interesa duena hurbil daiteke irrati-ko kideek antolatutako batzar horretara.

GIZARTEA/ Garapenerako formazio eskolak jasotzen ari dira euren herrialdeetan garapen proiektuak aurrera eramateko

Ertamerika, Hego Amerika eta Afrikako hamar lagun herrian, Fisc-ek gonbidatuta

MONIKA BELASTEGI

Garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko Fisc gobernuz kanpoko erakundeak gonbidatuta, Afrika, Hego Amerika eta Ertamerikako hamar lagun daude egunotan Mariaren Lagundian. Garapenerako formazio eskolak jasotzera etorri dira urriaren 15era arte.

Kolonbia, Mexiko, Nikaragua, Paraguai, Argentina, Peru eta Kongoko Errepublikako hamar lagun dira gure artean egunotan; zazpi emakume eta hiru gizon, hain justu ere. Garapen bidean dauden herrialdeei laguntzen dien Fisc gobernuz kanpoko erakundeak gonbidatuta etorri dira. Fisc erakundea herrialde horietan -baita beste batzuetan ere- hainbat egitasmo aurrera eramaten ari da; garapenerako egitasmoak, hain justu ere. Eta hamar lagun horiek egitasmo horietako ordezkariek dira.

HEMEN IKASI ETA HAN GARATU

Bisitaren helburua da euren herrialde eta komunitateen garapenerako formazio eskolak jaso-



Dirulaguntzak eman dizkieten erakundeak ere bisitatu dituzte egunotan hamar lagunek, Bergarako Udala, tartean.

tzea: proiektuak zelan kudeatu, Fisc erakundea zer den, kooperatibismoa, bidezko merkataritza, generoa eta garapena eta informatika izango dituzte ikas-

gai, gero, Fisc-ek euren herrialdeetan abian jarritako proiektuak kudeatzeko gai izan daitezten. Horixe da, hain zuzen ere, Fisc-en nahia.

Bestalde, eskolak jasotzeaz gain, euren errealitatea ezagutzera emateko herritar guztiei zuzendutako berbaldiak ere egingo dituzte datorren astean.

LABUR

Deialdia txakur arriskutsuen egoera legeztatzeko

Datozen egunotan, arrisku-
tsuak izan daitezkeen txakur-
ren errolda jarri behar du
abian Udalak, baita txakur
horiek edukitzeko beharrez-
koa den lizentzia lortzeko pro-
zedura ere. Horregatik, ondo-
ren aipatzen diren arrazako
txakurren jabeek jakinarazi
nahi die urriaren 31 baino
lehen Udaltzaingoarean bule-
gotik pasatu behar direla ego-
era legeztatzeko. Arrazak
hauek dira: pit bull terrierra,
staffordshire bull terrierra,
american staffordshire terrie-
rra, rottweilerra, dogo argen-
tinarra, fila brasildarra, tosa
inua eta akita inua.

Jardun elkartearen Jolasleku Ibiltariaren saioak

Jardun Euskara Elkarteak
antolatzen duen Jolasleku Ibil-
tariaren hurrengo bi saioak
honako hauek izango dira:
urriaren 11n, Poligonoan; eta
urriaren 25ean, Espoloian. Bi
saioak 17:00etatik 19:00etara
izango dira.

LAMINAZKO SOMIERRA OPARI

edozein neurritako

Relax, Flex, Laxy edo Rebiflex


koltxoia erostearren

GURIDI
koltxoi
denda

GURIDI
altzari
denda

Artekalea 6. BERGARA
Tel. 943 76 31 02

Artekalea 8. BERGARA
Tel. 943 76 31 02



41 URTE BETE DITUZTENEN AFARIA

Datorren urriaren 12an, 1961ean jaiotako bergararrak afaltzeko batuko dira, Tartufon. Azken urteotan kintada horren deialdia erabat arrakastatsua gertatu da. Joan den urtean, 40 urteko mugara iritsi zirela ospatzeko egindako jai berezian 74 lagun batu ziren. Aurtengoan ere marka horri eutsi nahi diote. Antolatzaileek aurten ere ezusteren bat izango dela aurreratu dute. Izenematea (12 euro) Dixula eta Nahikari tabernetan egin daiteke.

LORATEGIA TXUKUNTZEN

Udal lorezainak Irizar jauregiko lorategia txukuntzen izan dira egunotan. Antza denez, sastrakadiak egoera kaskarrean zeuden eta kendu egin dituzte. Aurrerantzean belarguneak eta garaiko landareak izango dira Irizarren. Etorkizunean Martokoko lorategia ere txukuntzeko asmoa dauka udalak. Ea lorategiak hobeto zaintzen ditugun guztiok.



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



Urriaren 1etik aurrera Disdiran

ORDUTEGI BERRIA:

Martitzenetik egubakoitzera 09:00etatik 16:00etara
Zapatuetan: 07:30etik 12:00etara

disdira
ileapaindegia

Masterreka 7. BERGARA. Tel. 943 76 00 55

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

BERGARARRAK MUNDUAN

NAIARA TABUENKA

25 URTE / DENDARIA / NORWICH-EN, INGALATERRAN

“Jendea bere kasa ibiltzen da Norwichen; askatasun hori gustuko dut”

EDU MENDIBIL

Lagun baten ezkontzarako etorri da Naiara lagunotan Bergarara, Nick lagunarekin eta Ariane euren alabatxoarekin. Naiara duela sei urte joan zen Norwichera, lan egitera: “Ingelesa ikastearren eta Bergararik irtetearren joan nintzen, umeak zaintzera, *au-pair* moduan. Sei hilabetez jardun nuen umeak zaintzen eta jarraian jatetxe hegoamerikar baten hasi nintzen. Gero, Bergarara bueltatu nintzen UBI amaitzera, baina ez nuen selektibitate egin eta hara itzultzea erabaki nuen, lana topatzeko arazorik ez nuela izango banekielako”.

Norwich Ingalaterra ekialdean dago, Londrestik 120 bat kilometrora: “Oso hiri lasaia da eta inguruan nekazariguneak daude. Beste hiri handi batzuekin alderatuta ezberdina da: 200.000 biztanle inguru ditu eta atzerritar pilo bat bizi da, unibertsitatea duelako. Hegoamerikar eta japoniar asko daude, baita espainolak

eta euskaldunak ere. Norwichek aukera handiak ematen ditu aisialdirako, aste barruan ere bai, eta hirietan gertatzen den moduan, jendea bere kasa ibiltzen da. Askatasun hori gustuko dut. Egia esateko, oso gutxitan irteten gara handik. Nicken aitona-amonak Yorken

“Atzerritar pilo bat bizi da Norwichen, eta aisialdirako aukera asko dago”

bizi dira eta noizean behin haiek bisitatzea joaten gara. Ariane 15 hilabete besterik ez dauka, eta gero eta zailagoa egiten zaigu irtetea. Udan ere Norwich ondoko hondartza batera joan izan gara, Great Yarmouth-era”.

Norwichen etxea erosi berri dute eta lanik ez dutenean lasai ibiltzea gustatzen zaie: “Nick jatetxe baten ari da eta aste bukaeretan lan handiagoa izaten dugu biok. Martitzenetan eta eguaztenetan izaten dugu jai, eta erosketak egitea eta norabait bazkaltzera joaten gara, atzerriko jatetxe asko dago eta. Lagunekin ere irteten gara ahal dugun guztietan”.



MINGAINARITIRAKA



Irene Murgoitio

AEK EUSKALTEGIKO IRAKASLEA

Irenek 26 urte dauka eta Filologia Erromaniko ikasketak egin zituan Gasteizen. Bi urte daroia AEKn lanian, eta kultura etxian erakusketak zaintzen be jarduten dau, aste bukaeretan.

- Ikasleei, ze errepikatzen jetsu behin eta berriro?**
Klasian ikasitakua kalian praktikan jartzeko, euskeraz berba egitteko.
- Laneko gauzarik onena?**
Jentiakin hartu-emona izatia.
- Klasiak, goizez ala arratsalde?**
Goizez, freskuago egoten naizelako.
- Ikasle hobereak, zeintzuk?**
Euren denpora libria sakrifikatzen dabenak euskara ikasteko.
- Maniaren bat klasia emoterakuan?**
Fotokopixak ordenauta eukitzia.
- Denpora librian ze egittia gustatzen jatzu?**
Zinera jua, musika entzun, mendixan buelta bat emon...
- Inguruko mendi bat?**
San Martzial.
- Irakurri dozun azken liburua?**
El hipopótamo, Stephen Fry-rena.
- Musika talde bat?**
Splitsville.
- Bertsozalia zara?**
Neurrizan. Gustatzen jat, baiña ez saio luziak entzutia.
- Telebistako programa bat?**
Metrópolis.
- Udazkenetik ze gustatzen jatzu?**
Koloriak eta, batzuetan, eurixa.
- Gustoko jantzi bat?**
Praka erosuak.
- Kolore bat?**
Urdira.
- Aste bukaerarako plan on bat?**
Mendi aldera juatia.
- Nora egingo ziñuke bidaia bat?**
Igual, Australiara.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Alex Labaien

Ekuator / 1998ko abuztua

Ekuatorrera joan baino lehen, Alex eta Maite hainbat aldiz joandakoak ziren oporretara bizikletarekin: “Hego Amerikara joateko gogo geneukan, eta Ekuadorren izandako bi lagunekin egon eta gero, hara joatea gomendatu ziguten. Ekuador txikia da eta kilometraje handiegirik egin barik, aukera dago toki asko ikusteko. Quitotik hegoaldera jo genuen, Amerika zeharkatzen duen Panamericana errepidea jarraituta. Oihana, Amazonas edo Avenida de los Volcanes ikusgarriarekin erabat gozatu genuen. Baños hiri turistikotik Puerto Misahualli izeneko herritxora joan ginen, oihanaren sarrerara. Oso paraje polita da, eta Napo ibaia (Amazonasen ibaiadarra) ondotik pasatzen da. Paramo Andino delakotik oihanera 4.000 metrotik 400 metroko altuerara pasatzen da 100 bat kilometroan, eta paisaiaren kontrastea zoragarria da”.



“Avenida de los Volcanesekin erabat gozatu genuen”

“Kolonbia ondoko kostaldea basatia da, ikustekoa”

Handik hegoaldera joan ziren, autobusez, Riobambara, Chimborazo sumendiaren azpian: “Sumendiak 6.000 metrotik gora dauka eta munduko mendirik altuena zela uste izan da, lurraren forma eliptikoarengatik. Azkenean ez ginen Cuencara heldu eta Cañar ondoan Ingapircako aztarnak ikusten izan ginen, inken garaikoak”. Cañaretik Quitora (600 Km) autobusez joan ziren eta handik kostalderantz abiatu ziren, bizikletaz: “Kolonbiatik gertuen dagoen kostalde partean izan ginen. San Lorentzon ez zegoen aurre egiteko modurik eta txalupan zeharkatu genituen mangladi sailak. Kostaldea basatia da, ikustekoa. Azken hiru egunak Suah eman genituen, hondartzan”.

Bizikletaz 800 bat kilometro egin zituzten 28 egunean: “Panamerikatik irten, eta ia dena pistak dira, baina mendiko bizikletarekin ondo moldatu ginen”.

EDU MENDIBIL



Riobambatik gertu dagoen komunitate bateko neska-mutikoak.

Los Cazadores
Eramateko oilasko erreak
5€
943 76 48 08
Zubieta 26
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Ur~bide
ITURGINTZA
Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

ELKARRIZKETA

ENRIQUE SAN NICOLÁS/BERGARA KIROL ELKARTEKO ATLETISMO SAILEKO ENTRENATZAILE OHIA

"Tristura handia ematen dit gaur egun Bergarak atletismo talderik ez izateak"


EDU MENDIBIL

Enrique San Nicolás (Bartzelona, 1929) herriko atletismoaren bultzatzaile nagusia izan zen 1960-1980 hamarkaden bitartean. Haren eskutik, Bergara KEko atletismo taldea Estatuko onenetakoa izatera iritsi zen. Joan den egubakoitzean, Bergara Kirol Elkarteak merezitako omenaldia egin zion Zuloa elkartearekin, eta han batu ziren San Nicolásekin batera atletismoan jardundako asko eta asko.

Zelan hasi zinen Bergaran atletismo entrenatzaile?

Betidanik gustatu izan zait atletismoa. Asko praktikatu nuen gaztetan: jabalina eta pisu-jaurtiketa, luzera-jauzia eta jauzi hirukoitza egiten nituen, nahiz eta jauzietarako eta jaurtiketarako gorputz egokirik ez izan. Hala ere, jauzi hirukoitzeko Espainiako txapeladun izan nintzen gazte mailan eta ondoren nagusietan, 1953an. Handik gutxira, Bergarara etorri nintzen lanera, 1954an, eta bi urte eman eta gero, 1962an hona etortzea erabaki nuen. Sasoi hartan, Eduardo Murua eta Juan Carlos Verde ibiltzen ziren atletismoa bultzatu nahian, eta haiekin hasi nintzen. Eta nik eman nuen urte gehien. Bergara Kirol Elkarteako Atletismo Sailera Arrasateko, Oñatiko edo Aretxabaleako jendea erakartzea lortu genuen: familia moduko bat ginen eta oso oroitzapen onak dauzkak. **Urte haietan atletismoan aritzea ez zen oso ohikoa izango. Zelako baliabideak zenituzten?**

Zelanbait moldatzen ginen. Atletismoa egiteko mentaliterik ez zegoen, ordura arte ez zelako ezer egin, eta askotan gurasoek



errezeloak izaten zituzten euren seme-alabak atletismoan hasteko. Entrenatzeko ere nahiko komekia izaten genituen, oso baliabide gutxi genituelako. Txartoen Jose Acedok pasatzen zuen: 400 metro hesietan Espainiako gazte mailako txapeladuna izan zen, Espainiako Selektzorako ere deitu zuten, eta Bergarako pistak ez zeukan kurbarik... Pentsa! Domeka askotan Arrasatera joaten ginen entrenatzera, Iturripera.

Bergarak dirulaguntza txiki bat ematen zigun, baina behin baino gehiagotan guk ordaintzen genituen bidaiak Tolosara eta beste herri batzuetara. Futbolari ematen zitzaion lehentasuna orduan. Gero, Bergarako zuzendaritzak atletismoa errentaga-

"Atletismo taldekook familia moduko bat ginen eta oso oroitzapen onak dauzkak"

ria ez zela esaten zuen eta dirulaguntza kendu egin ziguten. Jendeak ilusioa galdu zuen eta azkenean taldea desagertu egin zen, 1980ko hamarkadaren hasieran. Nire ustez, Udalak zertxobait gehiago egin zezakeen orduan, oso maila oneko jendea zegoelako taldean.

Bergara Estatuko atletismo talde garrantzitsuenetakoa izatera iritsi zela ezinezkoa dirudi gaur...

Oso talde ona geneukan. Jaurtitzaileak (Agustin Loidi edo Jose Luis Garmendia diskoan), jauzilariak (Maiztegi oñatiarra edo Pili Arin), Valentin Gantxegi fondoko probetan, Jose Acedo 400 hesietan, Patxi Murgoitio edo Rosa Mari Otxandiano arrasatearrak krosetako probetan... eta beste asko. Denetik zegoen, eta bergararrok proba guztietan nabarmentzen ginen. Ez dakit esatea ondo dagoen, baina nire bertute handiena horixe izan da, aurrean jartzen zidaten mutila edo neska zein probatarako balio zuen asmatzen jakitea. Federazioko-

ak harrিতa zeuden, ganorazko pista barik sekulako taldea gene-lako. Emaizak ikusita, Bergarako Udalak dirulaguntza jaso zuen atletismo pista bat egiteko, baina igerilekua egitea nahiago zuen. Niri kontsultatu zidaten eta nik aurrera egiteko esan nien, atletismoak jarraipenik ez zuela izango beldur nintzelako. Avilesen lehiatu nintzen behin, eta handik urte batzuetara hara bueltatzeko, ganadua zegoen pista zegoen tokian... Eta hori ez nuen Bergaran errepikatzerik nahi. Igerilekua egin eta gero atletismo pista egiteko konpromisoa hartu zuten, eta errepide nazionalerako tartan pista egin zuten handik urte batzuetara...

Zer deritsozu gaur egun Bergarak atletismo talderik ez izateari?

Tristura handia ematen dit. 1990etik Bartzelonan bizi naiz eta Bergara etortzen naizen bakoitzean emakumeak besterik ez dut ikusten Agorrosingo pistan, paseatzen. Pista ez da egokiena, baina lehen, txartoago ibiltzen ginen. Musu-truk lan egiteko prest dagoen jendea topatzea zailagoa da gaur. Pertsona egokia agertuko balitz... Gauza bat esango dizut: bere garaian nirekin ibili zirenek testigua hartzea izugarri poztuko ninduke.

Ilusio ikaragarria egingo zizun hainbeste urte igaro eta gero zure ikasle izandakoekin batzea, ez?

Bai, ez nuen horrelako omenaldirik jasotzea espero. Ezuste atsegina izan da niretako eta asko poztu nau nirekin atletismoan ibilitako horrenbeste jende Bergarak eskaini didan omenaldian batzeak. Gure artean oso giro ona zegoen, eta gaur ere hori ikusi da. Jendea nirekin horrenbeste akordatzeko bihotza berotu dit.

Hernández ermuarrak irabazi zuen domekan San Martin saria

E.M.

Aitor Hernández ermuarrak (Cafés Baqué) San Martin txirrindulari sariaren 37. aldian irabazi zuen domekan. Txirrindulariek 108 kilometroko ibilbidea bete behar izan zuten. Hernández Bideki taldeko Zimnetarekin batera heldu zen San Lorentzoko helmugara, eta ermuarrak bi segundoko aldean irabazi zuen esprintean.

Asentzioko mendatea, 100 kilometroan, erabakigarria gertatu zen. Hernándezek aurtengo denboraldiko bosgarren garaipena erdietsi zuen Bergaran. Iheslarien ostean tropel nagusia heldu zen: Imanol Erviti (Caja Rural) 3.a izan zen helmugan, 35 segundora, eta denbora berarekin Julen Zubero eta Iñaki Artetxe Ibaigane Opel taldeko txirrindulariak sailkatu ziren. Bergarako lehena

Zigor Medina (Debabarrena) izan zen, 31. postuan, 3 minutu eta 51 segundora. Domekako lasterketaren ondoren, Erviti izan da Lehendakari Txapelketako irabazlea.

Lokatzen antolatutako proban 76 txirrindularik hartu zuten parte, tartean, Belgikako Munduko Txapelketan izango diren Iban Iriondo gazteak eta Eneritz Iturriaga amateurak.



Hernández esprintean nagusitu zitzaion Zumetari.

BERGARA KE-REN 50. URTEURRENA

Hainbat garaitako jokalariek zilarrezko ezteiak ospatu zituzten

Liburuaren aurkezpenaren ostean, 220 lagun batu ziren Lasan egindako bazkarian


E.M.

Bergara KEren liburua aurkeztu zuten domekan. Hantxe izan ziren, besteak beste, Realeko, Eibarko eta Gipuzkoako Futbol Federazioko ordezkariak, 50 urteotan elkarteko presidente izandakoak eta elastiko mahoneroa jantzi duten jokalarri beterranoak.

Osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zegoela, eta Alai Taldearen saioaren ondoren, Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak ongietorria eman zien batutako-ei, eta Bergara Kirol Elkartek 50 urteotan herriko kirolaren alde egindako lana goraiatu zuen. Bestalde, Juan Luis Bikuña kazetariak eskerrak eman zizkien elkartearen historia jasotzen duen liburua argitaratzeko laguntza eman duten guztiei.

Era berean, Jose Luis Astiazaran Realeko presidentek, Jaime Barriuso Eibarko presidentek eta Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentek plaka oroigarri bana eman zioten Iñaki San José Bergara KEko presidenteari.

Batutakoendako egun berezia izan zen domekakoa eta han ziren Bergarako jokalarri izandakoak, hainbat garaitako 14 presidente edo Bergararekin zerikusia izan duten laguntzaileak. Ondoren, 221 lagun izan ziren Lasan jatetxean egindako bazka-



San José presidentek plaka oroigarria jaso zuen Astiazaranen eskutik.

MIGURA

rian: Orkonpon taldean aritutako beterranoetatik hasi eta gaur egun taldean jarraitzen dutenak ere bai. Antolatzaileek ahalegin berezia egin zuten garai bereko jokalarriak mahaietan elkarrekin kokatzeko, eta guztiek futbolari izan zireneko garaiak eta anekdotak gogoratzeko aukera izan zuten. Futbolaz gainera, elkarteko beste sailtako ordezkariak ere egon ziren bazkarian, giro ezin hobean.

PREFERENTEKO TALDEA, ETXEAN

Hitzorduei dagokienez, futboleko hiru partidu izango ditugu aste bukaeran: preferente mailako taldeak Real Unión taldearen aurka jokatu du, domekan, Agorrosinen, 16:30ean; bigarren mailako gazte taldeak Eibartarrak taldea hartu du, domekan, Ipinztan, 11:00etan; eta, azkenik, neskek zapatuan jokatu du, Aurrera Vitoria taldearen aurka, Ipinztan, 16:30ean.

Labegarrietako txapelketan 28 talde izango dira lehian

E.M.

Zapatuan, Labegarrietako Areto Futbol Txapelketaren 17. aldía hasiko da. Aurten, 28 talde izango dira lehian, bi multzotan banatuta. Guztira, 300 bat jokalarri hartuko dute parte asteroko partiduetan.

Zapatuan, 10:30ean, ligako lehenbiziko partiduak jokatu dira. Hasteko, Artusamak (azken ligako txapelduna) eta Pirulotarrak izango dira aurrez aurre kiroldegiko kantxan. Zapatu goizean hiru partidu eta domekan beste bederatzi izango dira Labegarrietan. Aurtengo ekitaldirako 28 taldek eman dute izena eta bi multzotan banatu dituzte antolatzaileek. Multzo bakoitzeko lehenbiziko zortzi taldeek *play-off*-a jokatzeko txartela lortuko dute. Era berean, ohikoa denez, Kopa Txapelketa kanporaketa bidez jokatu da. Esan bezala, aurreko denboraldian Artusamak taldeak eskuratu zuen ligako *play-off*-a eta A Ze Flaxak Kopa eta Superkopa irabazi zituen. Biak ere faboritoen artean izango ditugu aurten ere.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, jokalarrien fitxak urriaren 27ra arte entregatzeko auke-

ra egongo da. Egun horretatik aurrera jokalarrien batek fitxarik gabe jokatu balu, partidua galdutzat emango litzaioke haren taldeari. Garaiz abisatu gero, denboraldian jokalarri berriak fitxatzeko aukera izango dute taldeek.

Txapelketaren mesederako, antolatzaileek puntualtasuna eta garbi jokatzeko eskatu nahi diete txapelketan arituko diren jokalarri guztiei.

Asteburuko partiduak

ZAPATUAN, BARRUAN

- 10:30: Pirulotarrak-Artusamak. **Bildur.**
- 11:30: Bildurbarek-Dedo Pafarru. **Belen.**
- 12:30: Las p. de Satan-Belengua. **D.Pafar.**

DOMEKAN, BARRUAN

- 09:30: De Ore-Txipiron. **Errotagain**
- 10:30: Errotagain-Canalejas. **Txipiron**
- 11:30: Bayer-Torrekua. **A Ze Flaxa**
- 12:30: A Ze Flaxa-TNT. **Bayer**
- 16:00: K. Piperrak-Mongatxurak. **Aterpe**
- 17:00: Aterpe-Bar Bedarreta. **Ganbara**
- 18:00: Ganbara-La Qta. del Buitre. **Irubi.**
- 19:00: Irubide-Fac. **Agirrebeña**
- 20:00: Cipote Nucleico-Agirrebeña. **Fac**

FOTOKIROLA



Crespo eta Garcia, krosetan garaile

Pielagos taldeko Javier Crespok (erdian, argazkian) irabazi zuen San Martinetako krosa zapatuan. Emakumezkoetan Mari Karmen Garcia arrasatearra nagusitu zen. Azpiko kategorietan, Aritz Diazek garaipena eskuratu zuen benjamin maila; Lander Ugarte Andoni Badiolaren aurretik sailkatu zen alebin mailan eta, infantiletan, Mikel Labaka Antxon Hernándezi eta Eneko Gabilondori nagusitu zitzaizkien. /E.M.

PIRAGUISMOA

Eskimotaje ikastaroa izango da kanpoko igerilekuetan urriaren 7an eta 8an

Débagoienerako Kirol Zerbitzuek antolatuta, 14 urtetik gorakoendako Eskimotaje ikastaroa izango da Agorrosingo igerilekuetan, urriaren 7an eta 8an, 10:00etatik 13:30era. Bazkideendako prezioa 20 euro izango da eta gainerakoendako, 23 euro. Izenematea eta argibideak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian, goizez.

IGERIKETA EGOKITUA

Barruko igerilekuen itxiera dela-eta Igeriketa Egokituko ikastaroa atzeratu egingo da

Ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala dutenei zuzendutako Igeriketa Egokituko ikastaroa atzeratu egingo da, oraindik ez dute eta erabaki ikastaroa non eskainiko duten. Kirol Zerbitzua harremanetan jarriko da iaz ikastaroan ibili zirenekin.

PALA

Urriaren 19an hasiko den Bikotekako Pala Txapelketarako izenematea zabalik

Bikotekako Pala Txapelketa urriaren 19an hasiko da. Partiduak Angiozarren jokatu dira. Izenematea Kirol Zerbitzuan zabalik, urriaren 11ra arte. Azken urteotan epaile lanetan jardun duen Maximiliano Zangitu astelehenean hil zen, 76 urterekin.

Babeslea

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Izango diren ekitaldien artean, Donostiako Udal Txistulari Bandak emanaldia egingo du, Jose Ignazio Ansorena zuzendari duela

Antzezlan eta musika emanaldi ugarirekin urriaren 4an abiatuko da Udazken Kulturala

MONIKA BELASTEGI

Datorren egubakoitzean, urriak 4, hasiko da Udaleko Kultura Sailak antolatzen duen Udazken Kulturalako egitaraua. Emanaldi ugari izango dira: abesbatzak, txistulari bandak, bertsolariak, antzerki taldeak, erakusketak... Kultura eskaintza zabala Gabonak bitartean.

Antzerkia, musika, berbaldiak, erakusketak... Udazken Kulturalak hainbat arlo jorratuko ditu urriaren 4an, azaroan eta abenduan. Urriaren 4tik Gabonak bitartean zabalduko da kultura eskaintza hori, eta azken orduko arazoak direla medio, oraindik zehaztu gabeko antzerki taldeak irekiko du.

Hogeita hamar ekitaldi inguruk osatzen dute 2002ko Udazken Kulturalako egitaraua. Urriaren 4tik ekitaldi izango dira, azaroan, zortzi eta abenduan, berriz, bederatzi. Hori, Gabonetan izango diren beste hainbat ekitaldi kontuan hartu barik.

Ekitaldiok hainbat gunetan banatuta izango dira: kalean, Udal Pilotalekuan, udaletxeko areto nagusian, Zabalotegi aretoan... Eta gehienak, doan, gainera. Bestalde, ordaintzekoak direnetan gazteek prezio merkeagoa izango dute.

HILABETEZ HILABETE

Goian aipatu bezala, urriko lehen ekitaldia antzerkia izango da, eta horren ondoren, musikaren atala iritsiko da. Gainera, musika ekitaldiak izango dira nagusi urriaren. Lehenengo urriaren 5ean izango da: Jardunen trikiti taldea, San Joxepe elkarteak abesbatza eta Los Inquilinos Dixieland Band taldea kalez kale arituko

dira goizean eta arratsaldean. Horixe da, gainera, aurtengo berritasunetako bat, Udazken Kulturalako hainbat ekitaldi kalean izango direla.

Azaroko ekitaldien artean aipatzekoa da hilaren 9an izango den opera emanaldia. Donostiako Zuloaga taldeak *Dido&Eneas* opera kontzertu bertsioan egingo du San Pedro parrokan.

Azpimarratzekoa da, bestalde, Jardun euskara elkarteak azaroaren 22rako antolatu duen bertso jaialdia. Ekitaldian punta-puntako bertsolariak hartuko dute parte: Ainhoa Agirreazaldegik, Sebastian Lizasok, Andoni Egaña, Imanol Lazkanok, Joxe Agirrek eta Gorrotxategik, hain zuzen ere. Gai jartzailea Esoitz Aizpuru izango da.

Horrez guztiaz gainera, hainbat berbaldi eta erakusketa izango dira, baita zineklubeko film hautatuen emanaldia, eguenero, 20:00etan, Novedadesen.



Kanpoko taldeez gain, herrikoek ere hainbat ekitaldi egingo dituzte Udazken Kulturalako egitarauaren barruan.

Udazken Kulturalako egitaraua

URRIAK 4:

Antzerkia (oraindik zehaztu gabe dago antzerkitaldea).

URRIAK 5:

Herriko kaleetan: Goizez: Jarduneko trikitalariak eta San Joxepeko abesbatza. Arratsaldez: *Los Inquilinos Dixieland Band taldea*.

URRIAK 12:

Udaletxeko areto nagusia, 19:30: Donostiako Udal Txistulari Banda.

URRIAK 18:

Udal Pilotalekua, 22:30: Musika jaialdia San Joxepe antolatuta: Oñatiko Ganbara abesbatza, Los Pamplonicas eta Bergarako Ariznoa Gimnasia Erritmikoa.

URRIAK 19:

Mariaren Lagundia eliza, 19:30: Le Badinageren kontzertua.

URRIAK 20:

Udal Pilotalekua, 12:30: Udal Musika Bandaren kontzertua.

URRIAK 26:

Udaletxeko areto nagusia, 19:30: Julia Leonen abesti emanaldia.

AZAROAK 2:

Udal Pilotalekua, 12:30: Chulillako Musika Banda.

San Pedro parrokia, 20:00: Montijoko abesbatzaren kontzertua.

AZAROAK 9:

San Pedro parrokia, 20:00: Donostiako musika talde baten eskutik, *Dido&Eneas* opera kontzertu bertsioan.

AZAROAK 16:

Zabalotegi aretoa, 19:30: Ispilu taldearen eskutik Jacinto Benaventeren *Señora ama* antzezlan.

AZAROAK 17:

Udal Pilotalekua, 12:30: Udal Musika Bandaren kontzertua.

AZAROAK 22:

Novedades aretoa, 22:30: Jardunek antolatutako bertso jaialdia: Agirreazaldegik, Lizaso, Egaña, Lazkano, Agirre eta Gorrotxategik.

AZAROAK 23:

Udaletxeko areto nagusia, 19:30: Duo Aristizaball-Barandiaranen piano emanaldia.

AZAROAK 24:

Udaletxeko areto nagusia, 19:30: Judith Jauregiren piano kontzertua.

ABENDUAK 7:

San Pedro parrokan, 20:00: Castroko *Agrupación Coral Santa Mariaren* emanaldia.

ABENDUAK 13:

Udal Pilotalekuan, 19:00: Musika Eskolaren emanaldia.



Euskal arrantzaren gaineko hitzaldia

Udal Agiritegiak antolatutako *Bergara, Historia Topagunea* hitzaldi sortaren bigarren emanaldia datorren martitzenean, urriak 1, izango da. Xabier Alberdi Lonbide Geografia eta Historian lizentziatuak *Itsasoz handiko euskal arrantzaren abentura, XVI eta XVII. mendeen artean* gaia jorratuko du. Hitzaldian, aipatutako garaian euskal bake eta bakailao arrantzaleen bizitzako gertakariez arituko da. Hitzaldia Miguel Altuna institutuan izango da, 19:30ean. /M.B

KULTURAPILULAK

Manu Muniategiandikoetxeak erakusketa ireki du Iruñeko Moises Pérez de Albeniz-en

Manu Muniategiandikoetxea pintore bergararrak erakusketa ireki berri du. *Nora hoa? Posibilidades y riesgos sin dilema* izenburua du erakusketak eta pintura, eskultura eta bideoa uztartzen ditu. Formatu handiko hainbat lanek osatzen dute erakusketa eta urriaren 19ra arte egongo da ikusgai. Erakusketa egituratzeko hiru iturritik edan du: Oteizaren *Cajas Metafísicas*, Errusiako konstruktibismoa eta Akira japoniarren lana.

Altuna Akizu pintorearen erakusketa Gasteizko Iradier 9 arte-galerian

Juan Jose Altuna Akizu pintoreak erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, 20:00etan, Gasteizko Iradier 9 arte-galerian. Erakusketa hori urriaren 16ra arte egongo da zabalik, ondoko ordutegian: astelehenetik zapatara, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

E, TXO!

GUREGAIK / MUSIKA

HEZKIDE ESKOLAK HAINBAT IKASTARO ANTOLATU DITU

Alde batetik, edadedun pertsonen begirale izateko ikastaroa antolatu dute. Horretarako beharrezkoa da gutxienez 21 urte izatea eta gizarte edota hezkuntza esparruan izandako esperientzia egiaztatzea. Izena emateko epea zabalik dago urriaren 31ra arte.

Bestetik, kale ekintza eta drogomenpekotasunaren prebentziorako ikastaroa antolatu du Hezkide Eskolak. Kasu honetan ere beharrezkoa da gutxienez 21 urte izatea. Ikastaro hau azaroaren 8, 9, 15, 16, 22 eta 23an, hain zuzen ere. Izena emateko epea zabalik dago urriaren 31ra arte. Informazio gehiago nahi izanez gero telefono zenbaki hauetara deitu dezakezue: 943 31 14 74 eta 943 31 14 75.

TORIBIO ETXEBERRIA SARIKETA

Urriaren 10ean bukatzen da Toribio Etxeberria sariketarako lanak aurkezteko epea. Enpresa ideia eta proiektuen sariketa honetan bi modalitate daude: batetik, enpresa asmoen saria emango dute, eta bestetik, enpresa proiektuaren saria.

LITERATUR SORKUNTZARAKO BEKAK

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak euskarazko literatura sorkuntzarako Joseba Jaka bekak banatuko ditu. Lanak aurkezteko epea zabalik egongo da abenduaren 19ra arte.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 21 94 27 telefono zenbakira deitu, edo www.elkarlaneanfundazioa.org web orrialdera jo dezakezue.

Euskadi Gaztearen maketa lehiaketa abian

AINTZANE IRIZAR

Euskadi Gaztearen XII. Maketa lehiaketa abian da dagoeneko. Euskal Herriko musika talde eta bakarlari guztiek parte hartu dezakete, eta azaroaren 3ra arte dago lanak aurkezteko epea zabalik.

Lehiaketa honen helburua da Euskal Herriko musika talde eta bakarlariei aurrera egiteko aukera ematea. Ikusi besterik ez dago lehiaketa hori irabazi duten hainbat taldek, EH Sukarrak, Zea Maysek edota Sorotan Belek, esaterako, zelako arrakasta izan duten Euskal Herrian.


Esan bezala, nahi duten talde eta bakarlariek dute lehiaketa

horretan parte hartzeko aukera, aurrez beste diskorik argitara eman ez badute edota kontraturik indarrean ez badute.

Gutxienez, hiru kantaz osatutako maketak aurkeztu behar dituzte parte hartzaileek, eta honako helbide honetara bidali behar dute: Miramon pasealekua 172, 20014 Donostia.

WEB ORRIALDEAN BOZKETAK

Maketa lehiaketaren gaineko informazio gehiago honako web orrialdean topatu ahal izango duzue: www.eitb.com orrialdeko Euskadi Gaztearen orrialdean, hain justu. Informazioaz gain, partaideen kantak entzun eta gustukoenei botoa emateko aukera ere egongo da webgune horretan.



Azaroaren 3an bukatzen da maketak aurkezteko epea.

ARTIBOIA

LOTSABARIK / Maitane Loiola

“Enpresa munduan lan egin nahiko nuke”

AINTZANE IRIZAR

Enpresa ikasketak egiten dihardu Maitanek Oñatin, eta oso gustura ei dago ikasketetan egindako aukerarekin. Ikasketetan ez ezik, edozertan ei da saiatua; batzutan, baina, baita burugogor samarra ere.

• Txikitán, zer izan nahi zenuen?

Ileapaintzaile; lehengusina nagusiagoek hainbat orrazkera egiten zizkidaten, eta uste dut horregatik izango zela.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Enpresa munduan lanean, eta familia batekin.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Formala izateko; ikasketen gainean ez didate ezer esaten, izan ere, beti izan naiz saiatua.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Dagoeneko nahiko askatasun daukat, ez naute kontrolatzen; hortaz, ez daukat horrelako taktiken beharrik.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, lagunei, osasunari eta ikasketei.

• Zure bertute bat?

Hori besteek esan behar lukete, baina uste dut oso saiatua naizela eta nahi dudana lortu arte jarraitzen dut lanean.

• Eta hutsune bat?

Pazientzia gutxi daukat eta nahiko burugogorra naiz.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gezurrek eta nire bizkarretik nitaz gauza txarrak esateak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Orokorrean, gustora nago nire buruarekin.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Batez ere, begiradan.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez; atsegina izaten saiatzen naiz, besterik ez.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Denok esaten dugu berdina: hori ez da kontatzekoa.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Enpresa ikasketen bigarren maila • ZALETASUNAK: Kirola eta lagunekin egotea • MUSIKA TALDEA: Betagarri. LIBURU BAT: Ez dut irakurtzeko batere zaletasunik • FILM BAT: 'Mouline Rouge' eta 'Braveheart' • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA / Bittor Rodríguez



ZAHARREN ETXETIK


Ikastaro eskaintza zabala urritik aurrera San Joxepe elkarteak

EDU MENDIBIL

San Joxepe elkarteak ikasturte berrirako hainbat ikastaro antolatu ditu. Urritik aurrera erretiratuei zuzendutako informatika, eskulan, yoga eta pintura ikastaroak izango dira San Joxepeko egoitzan, Boni Laskurainen.

Informatikako hastapen ikastaroa urriaren 7tik azaroaren 13ra bitartean emango dute eta eskolak goizez (11:00etatik 13:00etara) edo arratsaldez (17:00etatik 19:00etara) izango dira. Eskolak astelehenean eta eguaztenean emango dituzte, eta 24 orduko ikastaroa izango da. Horren ondoren, beste bi ikastaro eskainiko dituzte San Joxepeko informatika gelan: batetik, urriaren 8tik azaroaren 14ra arte Informatikako sakontze ikastaroa izango da, martitzenetan eta eguenean, 17:00etatik 19:00etara, eta, bestetik, Boluntarioen Formakuntza ikastaroa, urriaren 8tik azaroaren 26ra bitarteko martitzenetan eta eguenean, 11:00etatik 13:00etara. Ikastaro horietan parte hartzeko sei euroko fidantza ordaindu behar da, eta ikastaroa bukatutakoan %80 baino partaidetza handiagoa izan duten ikasleei dirua itzuliko diete.

Joan den ikasturtean informatika ikastaroek erantzun ezin hobeia izan zuten San Joxepeko bazkideen partetik, eta aurrean ere erretiratuak teknologia



ARTXIBOA

Informatika gelak harrera ona izan du duela bi urte zabaldu zutenetik.

berrietan trebatzea da helburu nagusia. Zuzendaritzak gogorazi duenez, informatika gela dagoeneko zabalik dago nahi dutenentzako, aste barruan, 17:00etatik 19:00etara. Informatika gelan 10 PC ordenagailu dituzte.

YOGA, ESKULANAK, PINTURA

Era berean, zabalik dago eskulan, yoga eta pintura ikastaroetarako izenematea. Eskulan ikastaroa astelehene arratsaldetan izango da, 17:00etatik 20:00etara, urriaren 7tik abenduaren 16ra. Yogakoa ere urriaren 7tik abenduaren 16ra eskainiko dute, astelehenean eta eguaztenean, 11:00etatik 12:30etara; eta, azkenik, Pintura ikastaroko eskolak egubakoitzean emango dituzte, 15:00etatik

19:00etara. Ikastaro bakoitzerako izenemateak 26 euro balio du. Parte hartzeko interesa dutenek San Joxepeko bulegoetara jo dezakete, goizez 11:30etik 12:30era eta arratsaldez 17:00etatik 19:00etara. Goian aipatutako ikastaroen inguruko argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian jaso daitezke.

MENDI IRTEERA URRIAREN 2AN

Mendi irteeretako egitarauarekin jarraituz, San Joxepeko datorren eguaztenean, urriaren 3an, Urbiera mendira irteera antolatu du. Irteera 09:00etan izango da, autobus geltokitik, eta Urbian bazkalduko dute. Izenemateak 18 euro balio du eta interesatuek Euskadiko Kutxan egin beharko dute diru sarrera.

ANTZUOLA ETA BERGARAKO
JUBILATUEN VI. KULTUR
HAMABOSTALDIA 2002ko URRIA



Fisica Psiquica Social Etica



“SALUD INTEGRAL / OSASUN INTEGRALA”

Hamabostaldi Kulturaleko kartela

Elisabet Eguren eibartarrak irabazi du San Joxepeko Hamabostaldi Kulturaleko deitutako Kartel Lehiaketa. Denera, zazpi lan aurkeztu dira lehiaketara. San Joxepeko presidente Tomasa Zabaleta eta idazkari Mariasun Plazaola, Bearteko kide Luis Laskurain eta iazko irabazle Jose Antonio Laskurain izan dira epaimahai lanetan. Egurenak 600 euro jasoko ditu sari gisa, urriaren 4an, San Joxepen egingo duten kartelaren aurkezpenean, 19:00etan. Era berean, lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa zabalduko dute.

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

AGOITZ

tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

**REMENTERIA
Altzariak**

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan


Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea, Bergara
943 76 55 00

BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA Ibarrai 3, 943 76 97 97
LEGAZPI Santikutz 8, 943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

**JOXAN
ARRAINDEGIA**



Ibarrai 24, Bergara. Tf. 943 76 70 29

BONOFOTOA



'Vergara' hitzaren lehen aipamena 1050. urtekoa da, ermita honek Aragoiko San Juan de la Peña monasterioari lur batzuk eman zizkioneko agirian jasutzen denez. Zein da ermita honen izena?

MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

PINTOREBERGARARRAKGAUR


Bingen De Pedro

EDU MENDIBIL

Egunotan Bingen De Pedoren (Bergara, 1961) margolan erakusketa ikusgai dago Nahikari tabernan. Haren esanetan, "paisaia eta arkitektura, bizi garen espazioak, dira nire lanen ardatza, eta margotzerakoan sena eta zoria abiapuntutzat hartzen ditut. Pintura gozamen bezala ulertzen dut, jolas moduko bat. Barneko prozesu baten ondorioz sortutako gauzak atsegin ditut gehien. Baliabide askorekin egindako arteak ez nau horrenbeste erakartzen. Baliabideak ez lirateke muga izan beharko, eta, beharbada, horregatik gustatzen zait pintura, denon eskura dagoelako".

Mari Paz Alustizaren eskutik hasi zen margolaritzan eta ondoren Parisera joan zen, Arte Ederrak ikastera, 1980ko hamarkadaren hasieran: "Josean Izarekin jardun nuen han, eta eskola ona izan zen niretako, gaztetan denak eragina duelako norberarengan, pertzepzioa erne dago". Pinturari ordu pilo bat eskaintzen dizkio eta Bolun estudioa dauka. Betiere, argi artifizialarekin lan egiten duela esan digu, "hemen argia oso aldakorra delako".

"Barneko prozesu baten ondorioz sortutako gauzak atsegin ditut gehien artean"



E.M.

GALDEDEBALDE

1. Noiz hasi zituzten Ekialdeko saihebidia eraikitzeko lanak?
A/ 2001ko martxoan.
B/ 2000ko irailean.
C/ 2001eko uztailean.

2. Udazken Kulturalaren barruan, zein taldek antzetzeko du *Dama eta Kardinala* Bergaran?
A/ Adosek.
B/ Txalok.
C/ Maskaradak.

3. Hernándezek irabazi zuen San Martin txirringulari saria domekan. Zein taldetan ari da?
A/ Bideki.
B/ Caja Rural.
C/ Cafés Baqué.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
LUIS MARI EGAÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Luis Mari!
Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Kasinoa** / Galde debalde: **1-B, 2-A, 3-C.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Scottex komuneko papera
12 erroilu + 4 doan

2,79 €
464 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industrialak
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



BERGARA
Iñigo Agirre
Irailaren 27an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Irati Sarasua
Irailaren 28an 8 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



ELGETA
Lide Elgoro
Irailaren 30ean 8 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Marina Retolaza
Urriaren 3an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nerea González
Irailaren 17an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jon Montiel
Uztailaren 26an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Montiel
Irailaren 24an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Semark Lizarralde
Irailaren 24an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Irati Madariaga
Irailaren 25ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Garazi Marzo
Irailaren 26an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mireia Arteaga
Irailaren 25ean urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Unai Asula
Irailaren 28an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jokin Labaien
Irailaren 27an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Eider Velez de Mendizabal
Irailaren 25ean 23 urte.
Zorionak! Lagunak.



BERGARA
Maitane Muruamendiaraz
Irailaren 30ean 5. Zorionak!
Julen eta familiakoak.



BERGARA
Nerea Aginagalde
Irailaren 30ean 4 urte.
Zorionak! Etxekoak;
batez ere, Mikel.



ANTZUOLA
Leire Iparragirre
Irailaren 28an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



ANTZUOLA
Mikel Larrañaga
Urriaren 1ean 32 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



ELGETA
Ainara Belamendia
Irailaren 29an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mireia Iturrospe
Irailaren 29an 11 urte.
Urte askotarako!
Maite zaitugunok.



BERGARA
Ainhoa Ugarte
Urriaren 1ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Irati Bretaña
Urriaren 4an 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Mireia Osuna
Irailaren 30ean 2 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
aitona-amonak.



ELGETA
Maite Mandaluniz
Urriaren 1ean 24 urte.
Zorionak potxola!
Lagunak.



BERGARA
Endika Cabo
Urriaren 1ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta bizilagunak.



BERGARA
Naiara Gallastegi
Irailaren 27an 22 urte.
Zorionak Arrasatetik
eder hori!

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urate 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna


Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA



ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19
BALDANA Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PÖDOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritzitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Kruz Gallastegi 2, behe. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 27a / 127. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

JOSE LUIS ARMENDIA/YOGA IRAKASLEA

“Beharragatik etortzen da jendea yoga ikastaroetara”

AINTZANE IRIZAR

Urriaren 11n hasiko da Yoga ikastaroa, eta hilaren 4ra arte egongo da izena emateko aukera. Jose Luis Armendia mondragotarrak emango du ikastaroa; guk harekin berba egin dugu yogaren gainean.

Zeini zuzenduta dago hilabete hauetan emango duzun Yoga ikastaroa?

Hasierako ikastaro bat da, yogaren hastapenen gaineko ikastaroa; hortaz, yogaren gainean ezer ez dakitenei eta hasteko gogoia dutenei dago zuzenduta.


Yogak oinarrizko ariketa batzuk baditu, edozeinek egiteko modukoak; baditu baita ariketa aurreratuagoak ere. Dena dela, nor bere neurrian egin dezake yoga.

Zelan definituko zenuke yoga, labur-labur?

Yogak 'batasuna' esan nahi du, batasuna alor guztietatik begiratuta. Gizaki moduan lan egiteko adimenaren, emozioen eta gorputzaren batasuna lortzeko teknika multzoa da yoga.

Ze onura dakarzkio yogak edozein herritarri?

Nik, esaterako, beti izan ditut asma eta arnasketa arazoak, eta 24 bat urte daramatzat asmarendako medikaziorik hartu barik. Bizkarrezurrarendako ere oso ona da, postura egokiak hartzen



AINTZANE IRIZAR

irakasten digu, insomnioaren eta estresaren aurka ere oso ona da... Onura ugari ditu yoga praktikatzeak.

Azkenaldian, badirudi, boladan dagoela yoga praktikatzea.

Egia esan, orain dela 24 bat urte izan zuen *boom* handiena; garai hartan, Arrasaten baka-rrik zeuden yoga ikastaroak, eta Debagoien osotik joaten zen jen-

dea. Azken urteotan uste dut egonkortuta dagoela; gertatzen dena da komunikabideetan oihartzun handiagoa duela gaur egun yogak. Zeren bila joaten da jendea yoga ikastaro batera?

Hasierako garai hartan, zerbait berria zelako etortzen zen jendea; orain, berriz, beharragatik etortzen da jendea. Estresagatik, autoestimu arazoengatik, lasaitasun bila...

LANAK

Anbulatorioan, eskailera berriak

AINTZANE IRIZAR

Irailako osoko bilkuran esleitu zituen Udalak ambulatorioko eskailera egiteko lanak. Joan den astean hasi ziren lanekin; eskailera egiten bukatu dute dagoeneko, eta baranda jartzea besterik ez zaie geratzen.

Bestalde, aipatzekoa da ambulatorioan bestelako lan batzuk egiteko asmoa ere baduela Udalak: alde batetik, igogailua jarriko dute osasun etxera igo ahal izateko. Igogailua jartzeko prozesua abian da dagoeneko; izan ere, irailako osoko bilkuran bertan lehiaketara atera zituzten igogailua jartzeko lanak. Gauzak

horrela, behin lanok esleitura, laster hasiko dira lan horiekin.

Bestetik, komunak eta fatxada berregokitzeko asmoa dute Udaleko arduradunek. Horiek, baina, lan zailagoak dira; izan ere, ez dira ambulatorioa zabalik dagoen bitartean egiteko moduko lanak: egun batzuetan ambulatorioa komun barik egongo litza-tekeelako eta lanek eurek hainbat eragozpen sortuko lieketelako ambulatorioko erabiltzaileei.

Horregatik, medikuarekin batera, lanak noiz egin zehazteko, egutegi bat egiteko asmoa dute Udaleko arduradunek, ahalik eta eragozpen gutxien sortuz lanek.




ANTZUOLAKO UDALA

Aurreproiektuaren arabera, irudian ikusten den antzera geratuko da ambulatorioa.

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Kontuola



Zabalo Iturgintza S.L.
Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10, Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu



Azokak toki berria du dagoeneko

Azkenean hasi dira azoka frontoi aurreko aldean egiten. Duela pare bat aste ere iragarpen hori egin genizuen arren, ez zuten aldaketa hori egin joan den asteko egubakoitzera arte. Aurreko egubakoitza lehendabiziko eguna izanik, saltzaile bakoitza nahi izan zuen tokian jarri zen. Oraingo astetik aurrera, baina, zehaztuta geratuko da bakoitzaren kokapena./A.I.

HERRI IKASTETXEA

Eskolako jantokia zabalik astelehenetik

AINZANE IRIZAR

Irailaren 16an zabaltzekoak baziren ere, azkenean, oraingo asteko astelehenean zabaldu dute Herri Ikastetxeko jantokia. Ezinezkoa egin zitzaizen eskolako arduradunei jantokia zabaltzea, horretarako beharrezko altzari eta bestelako materialak ez zizkietelako garaiz ekarri.

Ora in, baina, txukun-txukun geratu da jantokia, eta hantxe baz-

kaltzen dute hogeita lau neska-mutikok.

Bazkalordurako hainbat zain-tzaile eta zerbitzari dituzte neska-mutikok. Bestalde, jantokiko atean aste osoko menua jartzen dute arduradunek.

Azkenik, aipatu behar dugu, nahiz eta oraingo astean, dagoeneko, jantokia estreinatu duten, Pausoka gurasoen elkarteko kideek inaugurazio ofiziala egin nahi dutela.



Hogeita lau bat umek bazkalatzen dute eskolako jantokian.

LABUR

Hainbat zabor edukiontzi tokiz aldatu dituzte

Ora in arte eskola aurreko jolastokiaren alboan zeuden edukiontziak Sagasti kalera eraman dituzte. Bestalde, toki horretan edukiontzi bat gehiago jartzeko eskaera ere egin dio Udalak Debagoieneko Mankomunitateari, baita Aiherra kalean ere.

Udaletxeak ohiko ordutegiari helduko dio

Urriaren 1etik aurrera ohiko ordutegiari helduko dio udaletxeak. Goiz eta arratsalde egongo da zabalik: goizez, 08:00etatik 13:00etara eta arratsalde, 14:00etatik 17:00etara. Liburutegiak ere ohiko ordutegia izango du datorren astetik: arratsalde egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara.

Kalean aurkitutako hainbat gauza daude udaletxean

Udaletxeko arduradunek adierazi digutenez, kalean aurkitutako hainbat gauza daude bulegoetan: giltzak, betaurrekoak... Zer edo zer galdu baduzue, hortaz, udaletxeko bulegoetatik pasa zaitezke.

HERRITARREN HITZA / Iñigo Ramírez · Irakaslea

Udal kontzejalak

Jakin badakit hemendik aurrera makina bat herritarrek -jende berri askok- parte hartuko duela txokotxo honetan, gai eta iritzi desberdinak eskainiz. Beraz, makina bat gai eta iritzi irakurri ahal izango dugu. Nik gaurko honetan, eta ez da lehen aldia, guztion etxetat hartzen dugunari buruz hitz egin nahi dut. Eta hasiko naiz galdera bat egiten neure buruari: Zer egiten dugu hain gaizki herritarrok dagoeneko hirugarren zinegotziak kargua lagatzeko?

Zinegotzi bakoitzak izandako arrazoiak errespetatuz, uste

dut Udala gero eta urrutiago dagoela herriko interesetatik, nahiz eta bertan aztertu eta erabaki herri bizitzarako erabaki oso garrantzitsuak. Ez da berria udal hauteskunde bakoitzean -eta datorren urtean, maiatzean, datorkigu beste bat- alderdiek ez dutela batere erraza izaten zerrendak betetzea.

Oro har, herritarrek ez du Udalean parte hartzerik nahi;



"Oro har, herritarrek ez du Udalean parte hartzerik nahi"

ez du "iskanbiletan" sarterik nahi; ez du bere burua ideologia konkretu batekin identifikatu nahi. Inork ez du nahi, baina denok arrazoi bat edo beste bat medio, zinegotzia erabiltzen dugu ahopean, eta ez dugu erreparorik izaten -askotan interes pertsonalak eta egoistak tartean- zinegotzi baten zein bestearen inkompetentzia salatuko. Ez da erraza, ez,

horrela lan egitea, norberaren interesak herriaren interesen gainetik jartzen direnean.

Horrelako udal ordezkari-tzarekin -BATASUNA, EA, PSE, ZUTIK, EAJ alderdiek osatua- gustura ez bagaude, ariketa bat proposatzen dizut: zein formula erabiliko zenuke zuk zeuk, irakurlea, herria ongi gobernatzeko, ongi gestionatzeko? Eta nola ikusten duzu zeure burua asmatu duzun formula horretan? Erantzun bat baduzu, konpartitu zure asmo hori, eta ea denon artean lortzen dugun gauzak hobeto egitea, egin behar asko dago-eta.


ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

Irailak 28
17:00: Antzuola-Urki.
Oharra: Erregionalek atsedean hartuko dute oraingo asteburuan.

EMAITZAK

Antzuola 2 Ikasberri 2 (Erregionala)
Ondarroa 2 Antzuola 6 (Gazteak)



MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

ESPOLON SCHOOL OF ENGLISH ORAIN ANTZUOLAN

2002-2003 matrikula zabalik

- Klaseak goizez, eguerdiz eta arratsalde
- Haurrak, gazteak eta helduak
- Azterketa ofizialeko prestakuntza
- Enpresak: ingeles tekniko eta komertziala
- Ordu-tegi bereziak: dendariak, erreleboak eta etxekoandreak



School of English

INFORMAZIOA:

943 76 03 53

BERGARA: Ibarra 31, barruko plaza.
Astelehenetik eguakitzera: 10:00-12:30 eta 16:30-19:30.
ANTZUOLA: Errekalde auzoko lokaletan.
Egutena eta egubakoitza: 16:30-19:00.

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko irailaren 27a / 111. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Bi biztanleko auto bat edukitzeaz gain, 9.110 ibilgailu pasatzen dira egunero

OXEL EROSTARBE

Diputazioak argitaratu berri du Gipuzkoako errepideetako zirkulazio neurketen informazioa batzen duen liburua. Neurketa horiek adierazten dutenez, 9.110 ibilgailu pasatzen dira egunero gure herritik. Biztanleria baino hamar bider gehiago.

Eibar, Arrasate, Elorrio eta Bergararako errepideetan Diputazioak jarri zituen zirkulazio neurgailuek eman dituzten emaitzak badakizkigu dagoeneko. Iaz, 42 egunean izan ziren zirkulazio neurgailuak Elgetako errepideetan. Bi hilean behin, astebete osan jartzen zituzten.

Neurgailuek emandako emaitzak oso adierazgarriak dira. 974 lagun bizi garen herrian 9.110 ibilgailu pasatzen dira egunero. Ibilgailu gehien pasatzen den gunea Elorriorako irteera da. Neurketen arabera, 3.165 ibilgailuk zeharkatzen dute gune hori egunero. Eibarrerako irteeran ere ibilgailu ugari ibiltzen da egunero, 2.458. Bergararako irteeratik, 2.255 eta Arrasaterakotik, 1.232. Ibilgailu gehien pasatzen



Elgetatik pasatzen den ibilgailu kopurua jakinda, herrian zirkulazio arazoak egotea normala dela esan dezakegu.

den errepidea Bergara eta Elorrio artekoa da. Herriko plaza aurrean zirkulazioagatik dagoen arriskua nabarmena dela argi uzten dute datuek.

974 ELGETARRENDAKO 479 AUTO

Denera, 571 ibilgailu daude herrian, biztanleen erdia baino gehiago. Aipatu beharrekoa da bi biztanleko auto bat dugula. Aurre-

ko urteotan Elgetatik pasatzen den ibilgailu kopurua igo den bezala, Elgetan dauden ibilgailuak ere gehituz joan dira. Une honetan, 41 kamioi, 9 erremolke,

8 traktore eta 34 moto eta motozikleta ditugu herrian.

Elgetako biztanleria kontuan hartuta askotxo direla esatea ez da txorakeria.

Pasatzen diren ibilgailuak

LEKUA	1994	2002
Eibarko sarrera	1.757	2.458
Arrasateko sarrera	862	1.232
Elorrioko sarrera	1.700	3.165
Bergararako sarrera	2.138	2.255
DENERA	6.457	9.110

Elgetan dauden ibilgailuak

IBILGAILU MOTA	KOPURUA
Autoak	479
Motoak eta motozikletak	34
Kamioiak	41
Erremolkeak	9
Traktoreak	8

HERRITARRENHITZA/ Ana Gillegi • Kazetaria

Bildurgarrixak eta kaltegarrixak

Hi, esan jostak honek...”, “hi, ba nik entzun donat...”. Bide baztarran, tabernan, kalia... zurrumurrutan aritzen diranian albotik pasatziak bildurra emoten dau.

Hortan jarduten dabenez, ez dakixe ondo, zenbat kalte egiitten daben. Gaiñera, erabiltzen daben tonuan arabera, edozeinek esango leuke ziharo arduratuta darella bestien gaitzen edo zoritzarrikin. Baiña urrindik bez; asmo bakarra morbuia eta gizurak barreiatzia besteik ez da. Inon arazozuek arduratzen danak, pertsoningana jotzen dau

zuzenian eta ez da azera batetik bestera saltoka aritzen, honi eta hari esaka.

Ez dakixe ondo zenbat kalte sortzen daben. Asko aspertu bihar da pertsonia historixak asmatzen, inun ez daren tragediak sortzen eta gaiñera gorritxu barik egitteko; ordubeteko irtenaldixan 10 pertsona kutsatzen dabe asmakizunekin. Eguneroko jana baiño inportantiaua da hemen



“Etxe pare bat hankaz gora ipini eta gero digestiñua trankil egitten dabe”

“afiziñuan” jardutia. Baiña hori bai, kristonak eta bi esan eta gero, “etxon ba merezi holakoik”, “eztao deretxoik”, “nahikua jakan horrek be” eta bapatian beste bide baztar batera jotzen dabe hurrenguai kontatzen. Eta etxe pare bat hankaz gora ipini eta gero, digestiñua trankil eitten dabe! Meritua dauke.

Gaiñera ez imaginatu emakumeik diranik bakarrik

hortan aritzen diranak, gizonak be pare-parian dare eta.

Herritarren osasunartzat ez da bat be ona aspertuta dagon jendia izatia inguruan, gaixotasunak, desgraziak... sortzen dittue hitzetik-hortzera, gaur zure etxian eta bihar albokuan. Susto galanta euki dabenez be ezagutzen dot, ahua sueto xamar ibilli dabelako. Zuk ez?

Goizian, atsaldian, gabian eta goixaldian be danaz “enteratzen” die. Txandaka jardungo ete dabe? Ez dakit zeinen lua gorde nahi daben baiña neri behintzat bildurra emoten doste.

LABUR

Kilometroetarako autobusa antolatu du gaztetxeak

Urriaren 6an, Gipuzkoako ikastolen jai izango da Zumarragan eta Urretxun. Gaztetxeak autobusa antolatu du hara joan nahi duten gazteentzako. 10:30ean irtengo da autobusa, plazatik, eta 22:30ean etorriko da bueltan.

Autobusa hartu nahi dutenek Haizean edo gaztetxean eman dezakete izena, eta horretarako lau euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko azken eguna urriaren 2a da. Arratsaldeko seiak aurretik eman beharko da izena.

Arkupe dantza taldiaren erakustaldixa domekan

O.E.

Kultura batzordiak antolatuta, Amezketako Arkupe dantza taldiaren erakustaldixa izango da domeka eguerdixan. 13:00etan, Euskal Herriko zenbait joko musikatua eta dantza aurkeztuko ditue herriko plazan. Hortan, dantzak ikusteko aukera paregabia eukiko dogu.

ASTEBURUAN, ESKULANEN ERAKUSKETA
Iazko eskulanen kurtsuan egin zeben lanekin erakusketia izango da aste bukaeran kultura etxian. Zapatuan eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik. Bertan, barriztutako altzarixak eta egurrakin eta beirakin landutako lanak ikusteko aukeria eukiko dogu.

Aurtengo eskulan ikastarorako izenemotia be zabalik dago.



Arkupe dantza taldearekin ekitaldi bikaina izango dogu plazan.

Urriko lehenengo astian hasiko da ikastarua eta nahi dabenak liburutegixan emon leike izena. Dagueneko talde bi osatuta dare,

bixak be astelehenetan. Lehenengua atsaldietan, 14:00etatik 16:00etara eta bigarrena gabetan, 20:00etatik 21:30etara.

LABUR

Erretiratuek oroimenaren gaineko berbaldixa izango dabe astelehen atsaldian

Datorren martitzenian, urriaren 1ian, oroimenaren gaineko berbaldixa izango da Ozkarbi Elkartian. Erretiratuen elkartiak antolatua dau berbaldixa eta elkarteko kide danei bertara juateko gonbidapena egin nahi dotse.

Saioa Lasa izango da hizlarixa. Adinian aurrera jua ahala oroimenian sortzen diran arazuen gainian berba egingo dau.

Kirol Zerbitzuetan eta kiroldegixan Yoga ikastarorako izenemotia zabalik

Aurten be Yoga ikastarua antolatu dabe Kirol Zerbitzuek. Ikastarua urriaren 15ian hasiko dan arren, Kirol Zerbitzuetan eta kiroldegixan zabalik dago izena emoteko epia. Egunak eta orduak izena ematen daben artian erabakiko ditue; seguruenik, martitzen eta eguenetan izango da ikastarua, 19:30etik 21:00etara.

Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza bikain irailian parte hartu daben lehiaketetan

Irailian zihar mailla bikaina emon dabe Elgetako dantzarixak. Hiart Bolinagak eta Andoni Elortzak parte hartu daben hiru lehiaketetan lehenengo postua eskuratu dabe. Hondarribia, Arrate eta Lezoko lehiaketak izan dira elgetarrak irabazi dituztenak. Udan lehiaketa ugaritan parte hartu eta gero, hurrengo astietan merezitako deskantsua izango dabe Elgetako dantzarixak.

Berriro ere abade propioa dauka parrokiak

O.E.

Domeka ezker abade berria daukagu herrian. Juan Kruz Juaristi da, zarauztarra jaiotzez, eta 69 urte ditu. Duela 42 urte hasi zen abade lanetan. Lehenengo sei urteak Orion eman ondoren, Ruandan eman ditu azken urteak, iaz bueltatzea erabaki zuen arte. Domekan, lehen meza eman zuen Elgetan, eta herriak ondo hartu duela esan digu. Izan ere, azken urtean Eibarko abadeek izan dute Elgetako parrokiaren ardura eta herriko sinestunek gogoa zeukaten herriak, beti izan duen moduan, abade propioa edukitzeko.

Juan Kruz Juaristik abade bezala izan duen ibilbidea kontatu digu: "Zarauztarra izanda, herritik gertu, Orion, abade izateko aukera izan nuen sei urte-




Juan Kruz Juaristi, Elgetako abade berria.

an. Garai hartan, abade asko zuden Euskal Herrian. Horrek Ruandara joateko ateak zabaldu zizkidan. Afrikako ohituretar

ohitu behar da: bizi izateko modu desberdinak, hizkuntza desberdina... Ruandatik bueltan hemengo bizimodura ohitzen ari naiz."

Afrikatik bueltan, Euskal Herrian kristautasuna beste modu batera bizi dela esan digu: "Afrikan oso jainkozaleak dira, txirotasunak eragiten du horretan. Hemen beste maila baten bizi gara, ekonomikoki aurrerratuago. Afrikan urte dezente eman ondoren, mundu honetan zelan kokatu asmatzen ahalegintzen ari naiz".

Elgetara lan egiteko asmoarekin dator Juan Kruz. Herrian katekesia emateko lantaldea osatuta dago, eta Karitasi laguntzen ere badihardute. "Debagoieneko gainerako abadeekin batzarrak egin behar ditugu, parrokia guztien artean ibarrean ditugun arazoei aurre egiteko.



Industrialdia urik barik

Astelehenian etxietako iturrietako urak presio gutxi zeukala konturatuko zineten asko eta asko. Kontua da industrialdeko tutuetan matxuria izan zala. Horrek herriko ur depositua ur barik geratzia eragin zeban. Industrialdera ura eramaten daben tutuetako giltza itxi arte, ura presio barik heltzen zan. Astelehenian bertan konpondu zeben matxuria.

BOLATOKI

Taberna
Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

Madura eta Infernokua, nor baino nor

Aste bukaera honetan Labegarraietako areto futbol txapelketaren 17. aldia jarriko da abian. Orduetik hona jokalaria mordo bat igaro dira kiroldegiko txapelketatik eta aurten ere 300 bat lagun arituko dira lehian. Partidu interesgarriak ikusteko aukera izango da.

Alboko argazkia 1990. urteko finalaren ostekoa duzue. Urte hartan Infernokua eta Madura taldeak iritsi ziren finalera, eta Infernokuak eskuratu zuen garaipena. Ohikoa denez, partidua bukatutakoan bi taldeetako jokalariek elkarrekin atera zuten argazkia, jasotako kopa eta guzti.

Madurakoak kamiseta zuriarekin ikus ditzakezue eta Infernokuakoak kamiseta ilunarekin, more kolorekoa. Honako hauek dira agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara:

Zutik: Iñigo Odriozola, Jose Antonio Zornotza, Josu Lazpiur, Jabier Arraigo, Aitor Eraña, Mikel Eraña, Jabi Oregi, Martin Sopolana, Migel Kalboetxeaga eta Juan Mari Vicente.



Makurtuta: Iñaki Azpiazu, Jose Mari Aranburu, Migel Angel Unamuno *Piti*, Juanjo Salamanca, Juan Manuel Ruiz, Joxe Balantzategi, Fernando Elgarresta, Jose Mari De Borja eta Fernando Kalboetxeaga.

Argazkia: Bergara KEren liburutik.


ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Oxirondoko azokak zortzi urte bete ditu

Oxirondoko azoka 1994ko irailaren leian inauguratu zuten. Hortaz, zortzi urte bete berri ditu azokak. Zeresan ugari eman zuen merkatu berriak 1991n hasierako adjudikazioa egin zenetik: eraikinak 300 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan zuen eta zabaldu baino lehen tirabirak izan ziren merkatarien eta Udalaren artean, postuen prezioagatik.



≈ 1993

Azokako aurreko aldea aparkalekua egin aurretik. Ondoren, urbanizazio lanak egin zituzten Santa Marina inguruan.



2002

Gaur egun, Oxirondo plazan, Katabian, txukuntze lanak egiten ari dira. Ingurua erabat aldatu da azken urteotan.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA

Kolorez betetako Udazkena eta negua. Zatoz Gantxegira.



GANTXEGI
Telesforo Aranzadi, 2. 943 76 00 79


Galtzetinak · Pantiak · Leotardoak · Pijamak · Emakumeendako eta gizonezkoendako azpiko arropa

ARREGI AROZTEGIA




Sukaldeak
Arozlan mekanikoak
Ateak
Horma-armairuak

Tarimak eta Parketak
Neoprenozko juntadun
egurrezko leihoak
PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



*Udazkena
eta negua
iritsi dira
Elgeta
Pielera*



Elgeta-Piel

Domingo Iturbe 8
ELGETA
943 76 81 12

**Irailaren 28tik aurrera
zabalik**

**Martitzenetik zapatura:
17:00-20:00.
Domekak:
11:00-13:30.
Astelehenetan itxita.**

